

Getxo Bizia herri plataformak urriaren 28ko udalbatzarrerako aurkezten duen MOZIOA

### **BILBAO METROPOLIAREN LURRALDE PLANA BERRIKUSTEAREN ALDE**

Aurretik gizarte eragileekin modu zabalean aztertu eta eztabaidatu gabe, 2003ko uztailan hasierako onespena eman zion Bizkaiko Aldundiak Bilbao Metropoliaren Lurralde Zatikako Planari. Hainbat udalek eskatuta alegazio epea 2004ko urtarrilaren 30arte luzatu zen, eta hilabete batzutako ixiltasunaren ondoren, alegazioak erantzun aurretik, 2005eko apirilean eman zitzaion behin behineko onespena aipatu lurralde planari.

Alegazio epean zehar aldundiak, udalek oro har eta gure udalerriri dagokionez Getxoko Udalak, ez zuten planaren inguruko informazioa zabaltzeko eta herritarrekin irizpide eta iritzia elkartrukatzeko ezelako ahaleginik bideratu. Hala ere 1.274 alegazio aurkeztu zen, Getxo Bizia herri plataformak 13 puntutan bildutakoa barne.

Getxo Biziak bezala, lurralde planaren eremuko herri plataformek eta Bizkaiko AuB-k kritika gogorra egin genion Bizkaiko Aldundiari LZP honi alegazioak aurkezteko momentuan, eragile sozialen partehartzea mespretxatu eta mugarik gabeko lur okupazioan eta hazkunde ekonomiko hutsean oinarritzen zen eredu "ez iraunkorra" bultzatzen ari zelako.

Kritika anitz askoren artean, Foru administrazioaren barnetik ere lurralde plana bertan behera uztearen aldeko aldarrikapenak izan dira, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak eginiko alegazioen bitartez hain zuzen ere.

Uribe Kostari dagokionez, LZP honek dakarren lur okupazio itzela eta erabilera erresidentzialaren aldeko desoreka salatu nahi dugu berriro ere, planaren aurreikuspenak betetzekotan hiper mobilitatea eta auto pribatuaren erabilera masiboa areagotuko direlarik. Populazioa datozen hamabost urtetan hazi baino, murriztu egingo dela adierazten duten datu eta azterketa demografikoek ez dute inondik inora lurralde planak ezartzen dituen lur okupazioa eta hazkunde erresidentziala justifikatzen.

Getxon lur okupazioaren mugak berraztertu behar dira eta etxebizitza berrien kopuruak errealitatera eta azterketa demografikoen aurreikuspenetara egokitu, beti ere kontutan hartuz etxe berriak eraiki aurretik etxebizitza hutsek (Getxon 2.500etik gora hainbat iturriren arabera) pertsonen egoitza izateko behar dutela.

Gure udalerrirako 9.479 etxebizitza berriren aurreikuspenak espekulazioa biderkatu eta etxe hutsen kopurua nabarmen igoarazi dezake.

Honengatik guztiagatik Getxo Bizia herri plataformak hurrengo proposamena egiten dio udal batzarrari aztertu eta onar dezan:

Lurra eta lurzorua zaindu beharreko baliabide garrantzitsua izanik, garapen eramangarria eta hazkundea bateraezinak ezezik kontrajarriak diren kontzeptuak direla kontutan hartuta, eta udalerrian zein eskualdean lurzoru okupatuen egoitza eta jarduera erabilerak orekatzea beharrezkoa deritzogularik, Getxoko Udalak Bilbao Metropoliaren Lurralde Zatikako Plana atzera bota eta berrikus dezala eskatzen dio Jaurlaritzako Ingurugiro eta Lurralde Antolaketa Sailari.

Getxon, 2005eko urriaren 24an.